



## **EBALUAZIOAZ HAUSNARTU ETA BESTELAKO PARADIGMA BATERA URRATSA EMAN BEHAR DUGU**

Hezkuntza Plataformen Topagunea-k "ebaluazioa eztabaidara" topaketak antolatu ditu gaur Gasteizen, Oihaneder Euskararen Etxean.

Bertan 48 lagun bildu dira eta egungo ebaluazio sistemaren inguruan eztabaidatu dute. Hasieran Marian Bilbatua Hezkuntza Doktorearen hitzaldia izan da. Bertan, egungo ebaluazio ereduak dituen gabezi eta mugak azaleratu ditu. Baita bestelako eredu batera salto egiteko beharra azpimarratu ere.

**Bilbatuaren ustez egungo ebaluazio ereduak erabat uniformitzailea da. Ez du hobekuntzarako balio eta ebaluazio integrala egin beharrean ikasleari nota bat jartzera mugatzen da, kalifikatzera.**

Honen aldean, modu partekatu eta kolektiboan ebaluazio integral eta hezitzailearen aldeko ideia azpimarratu du. Akatsak ikasteko baliatu eta modu positiboan testuingurua kontutan hartuta garatuko den eredu bat defendatu du hezkuntzan aditua den Bilbatuak.

### **TALDE DINAMIKA**

---

Talde dinamika kolektiboa egin eta hauek dira atera diren ondorio nagusiak:

- Egungo ebaluazio ereduak kaltegarria da
- Ikasleak sailkatzeko erabiltzen ari da
- Ez du balio ikasleen gabeziak identifikatu eta aurrera egiteko
- Eraitza hutsetan jartzen du arreta eta ez prozesuan
- Hezkuntza sistema guztia baldintzatzen ari da
- Politikoki erabiltzen ari dira, gobernuen interesen arabera, doktrinamendurako
- LOMCEren arabera ereduaren kopia inposatzen ari zaigu
- Ikaslea zentroa izan behar da eta sistema osoa ebaluatu beharko litzateke
- Azterketak garrantzi osoa hartzen ez duen bestelako ereduak planteatzen dugu
- Ebaluazioa prozesu bat izan behar da eta alde emozionalak ere tokia izan behar du ikaslearen garapen osoa kontutan hartu nahi badugu
- **Eredua aldatu, prozesua ebaluatu eta ebaluazio jarraia bitartez hezkuntza sistema osoari ekarpena egin behar diogu.**

### **LOMCE eta HEZIBERRIri PLANTO!**

---

Hezkuntza Plataformen Topaguneak mezu argia bidali nahi du gaurko egunean. Ez dugu LOMCEren arabera ebaluazio eredu atzerakoi eta zurruna partekatzen ezta onartzen ere. Hori dela eta, aurrean ere, gaurko hausnarketaren ondorioz, **LOMCEk agintzen dituen eta HEZIBERRIk asumitu dituen azterketei planto egingo diegu.** Dei egiten diogu, gainera, hezkuntza komunitateari eta herritarrei, bide honetan aurrean ere planto dinamika masiboa gurekin batera antolatu eta garatu dezaten.2

Bai EAEko Hezkuntza saila zein Nafarroakoa LOMCE aplikatzen ari dira. Gure egunerokoa



HEZKUNTZA  
PLATAFORMEN  
TOPAGUNEA

LOMCE ikastetxeetan sartu digute, atzeko atetik. Hori dela eta, iaz, Lehen Hezkuntzako 3. mailako azterketari 178 ikastetxetan planto egin genuen.

Aurten Lehen Hezkuntzako 3. eta 6. mailan, DBHko 4. mailan eta baita batxilergoko 2. mailan LOMCEren araberako azterketak izango ditugu. Guzti horiei planto egiteko deia luzatzen dugu.

**Gainera, salatu nahi dugu aurten ere Hezkuntza sailen aldetik oraindik-orain inolako informaziorik eman ez dutela. Aipatu azterketako egiteko 3 hilabete soilik falta diren honetan, ez ikastetxeei, ez familiei, ez irakasleei, ezta berritzeguneei ere ez zaie inongo informaziorik helarazi.**



**HEZKUNTZA PLATAFORMEN TOPAGUNEA**

[hezkuntzaplataforma.topagunea@gmail.com](mailto:hezkuntzaplataforma.topagunea@gmail.com)

[www.hezkuntzaplataformentopagunea.blogspot.com.es/](http://www.hezkuntzaplataformentopagunea.blogspot.com.es/)

[@Hezk\\_Topagunea](#)